



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 27koa. Horren bidez Gasteizko Udalari gomendatzen zaio erreklamatzaileri bahitutako zenbatekoa itzul diezaion, bahiketa egin zen unean zorra preskribatuta baitzegoen.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailak Gasteizko Udalaren jarduerarekin ados ez zegoela adierazi zuen, tokiko erakunde horrek 2011ko apirilean 80,38 € bahitu zizkiolako bere kontu korrontetik eta ez zuelako berariaz ebatzi bahiketa probidentzia horren aurka sustatutako errekurtsua.

Udalan jakinarazi ziotenaren arabera, prozedura betearazlea 2011ko ekitaldiko (...) matrikulako ibilgailuaren TMIZri zegokion ordainagiria borondateko epean ordaindu ez izanagatik hasi zen.

Eragindakoaren ustez, igarotako denbora kontuan hartuta eta hura kobratzeko jarraitutako prozedura betearazlearen berri izan ez zuenez, zorra preskribatuta zegoen, eta hala argudiatu zuen bere errekurtsua Gasteizko Udalaren aurrean.

2. Zor horren ordainketa erreklamatzeko sustatutako jarduerak argitze aldera, Gasteizko Udalari aurkeztutako errekurtsua berariaz ebatz zezan eta horren inguruko informazioa eskaini ziezagun eskatu genion.
3. Erantzunean, eragindako toki erakundeak bahiketaren egokitasuna defendatu zuen eta, zehazkiago, kexak hizpide zuen likidazioa 1994-486 premiamenduzko espediente gaineratuta zegoela adierazi zuen. Era berean, premiamenduzko espediente horren esparruan zehar hainbat kobratze burutu zirela zehaztu zuen, 2002-06-14an bahiketaren probidentzia ALHAOn argitaratu zenean egindako azken administrazio jardueraz geroztik. Kobratze horiek 2005-03-10ean, 2009-07-08an eta 2011-05-17an burutu ziren. Gasteizko Udalak defendatzen zuenez kobratze horiek zorraren ordainketa eskatzeko eskubidearen preskripzioa eten zuten, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 65. artikulua arabera 4 urtekoa dena.
4. Erantsitako agiri gisa Arartekoari espedientearen *reporter* informatiko bat eskaini zitzaion. Horren bidez zehaztu ziguten nola jakinarazi zen edo jakinarazten saiatu ziren erreklamatzailaren etxebizitzan metatutako espediente honetan. Hala eta guztiz ere, eskainitako pantaila-kaptura edo *pantallazoan* etxebizitzaren inguruan ikusten ziren datuetan akats bat zegoela antzeman



genuen, izan ere, erreklamatzaillearen etxebizitza kanpoko higiezin baten 1. ezkerrean zegoela agertzen zen, eragindakoa barneko atalondo baten 1. ezkerrean bizi zen bitartean. Hori dela-eta, agiri-espeditentearen kopia eskain ziezaguten eskatu genuen.

5. Ogasun eta Ekonomia Sailak ALHAOn premiamenduzko eta bahiketako probidentziari emandako argitalpenaren kopia eskaini zigun, eta pisuaren aldearen transkripzioan izandako akatsa eta higiezinaren barnealdea aipatu ez izatea ez zuen arrazoi nahikotzat jo jakinarazpena ezeztatzeko, ez baitzuen babesgabeziarik antzematen, horren inguruan beharrezkoak ziren datuak jakinarazpenean baitzeuden. Datu horiek, Gasteizko Udalaren arabera, nahikoak ziren Correosek hartzailea identifika zezan. Berrespen argudio gisa, toki erakunde horrek alegatu zuen kontuen bahiketa diligentzia eragindakoak 2011n kanpoaldeko 1. eskuineko higiezinan hartu izanaren adierazpenarekin jakinarazi zela.
6. Gasteizko Udalak eskainitako balorazioarekin bat ez gentozenez, agiri-espeditentearen kopia bidal ziezaguten eskatu genuen berriro ere. Zentzu horretan, egindako jakinarazpena bermatzea erakunde horri zegokiola azpimarratzen dugu eta berariazko legezko xedapen bidez espeditentean gaineratu behar zela.
7. Azkeneko txostenean Gasteizko Udalak dagoeneko adierazitako argudioak berretsi ditu eta jakinarazpen prozedura zuzenbidearen arabera egin dela ondorioztatu du. Agiri-espeditenteari dagokionez, zera adierazi du: *“eskatutako administrazio egintzen jakinarazpenen saiakerak egin zirenetik igarotako denbora tarte hartuta, horiek ez dira premiamenduzko espeditentean mantentzen.”*

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta Gasteizko Udalak igorritako informazioaren planteamendua aztertu ondoren, uste dugu ondoko hauek jakinarazi behar dizkizugula:

Gogoetak

1. 1994-486 premiamenduzko espeditentean jarraitutako jarduerak 2001-2011 tartean gertatu dira eta epe tarte horretan Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eragina izan duten araudi aldaketak egon dira. Zehazki, 2005. urtean Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru



Arau Orokorra onartu zen, 1981eko maiatzaz geroztik indarrean egon zen aurreko foru araua indargabetu zuena.

Preskripzioaren inguruan arau baten eta bestearen xedapenek ez dituzte aldaketa nabarmenak jaso, beraz, foru arau horren artikuluekiko erreferentziak Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrari (ZFAO) egingo dizkiogu.

Arau horrek, 65. artikuluan zera azaltzen du: *“Ondoko eskubideak lau urteren buruan preskribituko dira::*

b) Administrazioak likidatutako eta autolikidatutako zergak ordaintzeko eskatzeko duen eskubidea.

Aurkezteko epea 66. artikulua biltzen dituen arauen arabera zenbatzen da, eta ondorio horietarako zehazten duenez, 65.1.b) artikulua kasuan, preskripzio epea zenbatuko da *“ordainketa borondatez egiteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita”*.

Halaber, ZFAOaren 67.2. artikulua zera dio: *“Foru arau honetako 65. artikuluko b) letran aipatutako eskubidearen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:*

a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk onartzeko, arautzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, aseguratzeko edo likidatzeko ekintza bat egiten duenean (...).”

2. Ondorioz, premiamenduzko espedientearen esparruan jarraitutako administrazio jarduerak administrazio horrek zorraren ordainketa erreklamatzeko eskubidearen preskripzioa eteteko aukera eskaini duten edo ez aztertu beharko dugu. Horretarako eskainitako espedientearen edukia aztertu beharko dugu, Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziaren argitan, zerga-beharraren ezagutza formalik egon den edo ez zehaztu ahal izateko.

Ordainagiriari buruzko jardueren kontsultaren inguruan eskainitako inprimatutako pantailan zera aipatzen da:



Mugimendu data	Jarduera	Azken jarduera data
17/05/2011	Premiamenduzko esp. kobratzea	17/05/2011
08/07/2009	Premiamenduzko esp. kobratzea	08/07/2009
10/03/2005	Premiamenduzko esp. kobratzea	10/03/2005
13/06/2002	Bahiketa probidentziaren jakinarazpena	13/06/2002
14/05/2002	Bahiketaren probidentzia ALHAOra bidali	14/05/2002
19/02/2002	Bahiketaren probidentzia ALHAOra bidali	19/02/2002
05/11/2001	Premiam. probidentziaren jakinarazpena	05/11/2001

Informazio hori pantailan agertzen diren agirien xehetasun honekin osatzen da:

Premiamenduzko probidentzia: jakinarazpena 2001/11/05, ALHAOn argitaratuta, argitalpen eskaera 2001/09/27, argitalpen data 2001/10/17, ondoriozko data 2001/11/02.

Bahiketa probidentzia: jakinarazpena 13/06/02, ALHAOn argitaratuta, argitalpen eskaera 14/05/02, argitalpen data 29/05/02, ondoriozko data 14/06/02.

Kontuen bahiketa diligentzia: jakinarazpena 2011/05/30, korrespondentzia ematea.

Hau da, kontuak bahitzeko azken diligentzia hori izan ezik, eragindakoari 2011ko maiatzaren 30ean jakinarazi zitzaiona, premiamenduzko espedientean bideratu diren gainontzeko administrazio jarduerak Arabako Lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratuz jakinarazi dira.

3. Jakinarazpena berme bat da, bai administrazioarentzat baita herritarrentzat ere. Administrazioarentzat egintzaren eraginkortasuna arauko jakinarazpenaren mende dagoelako, eta herritarrentzat benetan eragiten dien egintza ezagutzeko eta, beharrezkoa balitz, haren aurka egiteko bidea delako.

Horri dagokionez, egokitzen jo dugu Auzitegi Gorenak jakinarazpenaren inguruan eman duen jurisprudentzia guztia azpimarratzea. Horren arabera, jakinarazpena interesdunari jakinarazi ez zaion ezein egintzak bere aurkako ondoriozko edukiko ez duela ziurtatzen duen berme juridikoa da. Izan ere, ez jakinarazteak konstituzioak ezarri duen oinarritzko eskubidetako bat gauzatzea eragotziko lioke, hau da, haren eskubide eta interesak benetan babesteko eskubidea eta babesgabetasun egoera eragingo luke.



Zentzu horretan, ontzat jo dugu 2004ko urriaren 28ko Auzitegi Nagusiaren Epaiaren Laugarren Oinarri Juridikoaren zati bat mahaigaineratzea (RJ\2004\6594). Horren arabera:

“El procedimiento administrativo se desarrolla en función de un principio de garantía de los administrados y otro de eficacia de la Administración en una tensión dialéctica que en materia de notificaciones se manifiesta con especial intensidad. La primordial garantía de los interesados es tener conocimiento directo de las resoluciones que les afecten pero, a su vez, constituyendo la notificación de los actos administrativos que afectan a los interesados presupuesto para su eficacia, el legislador ha adoptado los mecanismos que en cada caso considera adecuados para vencer las situaciones derivadas de la imposibilidad de proporcionar a los interesados ese conocimiento. Por ello, el artículo 59. 2 LRJ-PAC establece con carácter general que las resoluciones y actos administrativos se practicarán en el domicilio del interesado, y sólo tras dos intentos de notificación en ese domicilio sin que nadie se haga cargo de ella, se acude al arbitrio de la notificación edictal (art. 59.5 LRJ-PAC).

La notificación por edictos es un mecanismo formal que no garantiza el efectivo conocimiento por el interesado del acto o resolución que le afecta por lo que sólo cabe aceptar su empleo como último recurso, cuando han resultado fallido los dos intentos previos de notificación en el domicilio del interesado y cuando aquellas notificaciones se han practicado según lo preceptuado legalmente. Entre los requisitos de dichas notificaciones en el domicilio del interesado se encuentran, cuando la notificación se haya entregado a la entidad pública empresarial Correos, y Telégrafos, los establecidos en el Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre: que en el envío conste la palabra «Notificación» y, debajo de ella y en caracteres de menor tamaño, el acto a que se refiere (citación, requerimiento, resolución) y la indicación del número del expediente o cualquier otra expresión que identifique el acto a notificar (art. 40), así como, si nadie pudiera hacerse cargo de la notificación en el domicilio del interesado, que se haga constar este extremo en la documentación del operador postal y, en su caso en el aviso de recibo que acompaña a la notificación, junto con el día y hora en que se intentó la misma y que, una vez realizados dos intentos, el citado operador deposite en lista la notificación durante el plazo de un mes, a cuyo efecto deberá dejar al destinatario aviso de llegada en el correspondiente casillero domiciliario...”

Zerga alorrean zera hartu behar dugu kontuan: *“Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen erregimena administrazio-arau orokorretan ezarri da; nolana ere, kontuan eduki behar dira foru arau honetako 98. artikuluan eta 179. artikuluko 4. idatz-zatian eta atal honetan ezarritako ñabardurak”* (ZFAOaren



105. art.) eta zentzu horretan, berezitasun horiek ez dituzte aldaketa nabarmenak eskaintzen.

4. Gasteizko Udalak preskripzioaren etetea alegatu du, beraz, frogatu behar du aldizkarietan egindako argitalpena izan zela -Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia hitzez hitz errepikatuz- *azken errekurtoa, interesdunaren etxebizitzan jakinarazteko alde aurretiko bi saiakerek huts egin ondoren eta jakinarazpen horiek legez agindutakoaren arabera egin zirenean.*

Egun arte froga hori ez da eskaini. Izan ere, espediente horren agiri fisikorik ez dagoela onartu da. Beraz, erakunde honek ezin du toki erakunde horrek duen tesia hartu ezta harekin bat egin ere ALHAOn izandako argitalpenak preskripzioa eteteko ondorioa izan zuela dioenean.

5. Bestalde, toki erakunde horrek bermatutakoaren arabera aldea idaztean izandako akatsa eta higiezina barnealdean zegoela aipatu ez izana ez da arrazoi nahikoa helbide horretara zuzendutako jakinarazpenak bertan behera uzteko, izan ere, jasotako datuan nahikoak dira Correosek hartzailera identifikatu ahal izateko.

Gai hori baieztatutzat jotzen da 2005eko maiatzaren 30eko kontuen bahiketa diligenziaren ordainagiria jaso izanaren adierazpenarekin.

Gure ustez, jaso izanaren adierazpen horren bidez -horren kopia bat helaraziko balitzaiguke egiaztatu ahal izateko- jakinarazpen hori, helbidea gaizki egon arren, kexagileari eman zitzaioa bakarrik bermatu ahalko zen. Hori bai, adierazpen horren bidez -azpimarratu beharra dugu ez dugula haren kopiarik jaso- ezin dugu ondorioztatu eta are gutxiago demostratu metatutako espedientearen bidalitako gainontzeko jakinarazpenak eragindakoaren etxebizitzara heldu zirenik.

Nolanahi ere, aipatu beharko genuke eskaini dizkiguten inprimatutako pantailetan ikusten den informazioan ez dela jasotzen 2005ean zorren bahiketa diligenziaren jakinarazpena burutu zenik. Eskainitako inprimatutako pantailetakoa *reporter* informatikoan azaltzen denaren arabera, eragindakoak jasotako jakinarazpen bakarra 2011ko maiatzean bideratu zen.

6. Azkenik, aipatu beharko genuke, toki erakunde horrek jarraitutako arrazoibidea jarraituta ere, metatutako espedientearen preskripzioa ofizios adierazi behar izan zela, izan ere, 2005eko maiatzaren 30etik, toki erakunde horren arabera, erreklamatzaileri bahiketa diligenziaren jakinarazpenaren preskripzioa eteten den une hartatik, Gasteizko Udalak hurrengo jarduera sustatzen duen arte, hau



da, 2009ko uztailaren 8an premiamenduzko espedientea kobratzen duen arte, 4 urte baino gehiago igaro dira, zehazki, 4 urte, hilabete eta 8 egun.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:

48/2012 GOMENDIOA, martxoaren 27koa, Gasteizko Udalari egina

Erreklamatzaileri bahitutako zenbatekoa itzul diezaioten, bahiketa hori bere kontu korrontean egin zen unean zerga zorra preskribatuta zegoelako.

